



2268/2023 EBAZPENA, maiatzaren 22koa

RESOLUCIÓN 2268/2023, de 22 de mayo

Ogasun, Finantza eta Aurrekontuerako
Idazkaritza Teknikoa
Espt. zk.: 68/23 (INFOPU 2023-14)

Secretaría Técnica de Hacienda, Finanzas y
Presupuestos
Nº Expte.: 68/23 (INFOPU 2023-14)

Informazio publikoa eskuratzeko eskaera,
[REDACTED] **jaunak aurkeztutakoa,**
1990-2021 aldiko BEZarenaitorpenei
buruzko datuei buruzkoa.

Solicitud de acceso a información pública
presentada por [REDACTED] en
relación a datos sobre las declaraciones de IVA en
el período 1990-2021.

AURREKARIAK

ANTECEDENTES DE HECHO

Lehenengoa. 2023ko apirilaren 21ean sartu zen Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Idazkaritza Teknikoan informazio publikoa eskuratzeko eskabidea, [REDACTED] jaunak aurkeztua, gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzko otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren babesean. Eskaera hori aldeztu aurretik aurkeztu zen Eusko Jaurlaritzan, eta hark foru-aldundietara bideratu zuen, informazio hori Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurralde historiko bakoitzean baitago.

Primero. El 21 de abril de 2023 ha tenido entrada en la Secretaría Técnica de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava solicitud de información pública de [REDACTED] al amparo de la Norma Foral 1/2017, de 8 de febrero, de transparencia, participación ciudadana y buen gobierno. Dicha solicitud había sido presentada previamente en el Gobierno Vasco, quien la derivó a las Diputaciones Forales pues dicha información se encuentra en cada uno de los Territorios Históricos que integran la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren esku dago eskatzaileak eskatutako informazio publikoa: BEZaren aitortpenaren mikrodatuak, .csv formatuan edo antzekoan. Zehazki, honako mikrodatu hauei dagozkienak: (1) BEZaren aitortpena (303 ereduak), eta (2) erregistro-liburuak edo homologoak Euskal Ogasunarentzat. Ahal izanez gero, eskatutako informazioak 1990-2021 aldia estaliko luke.

La información pública, obrante en el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos a la que solicitó acceso consistía en los microdatos de la declaración del IVA en formato .csv o similar. En concreto, los microdatos correspondientes a (1) declaración del IVA (Modelo 303), y (2) libros de registro, u homologos para la Hacienda Vasca. Idealmente la información solicitada cubriría el periodo 1990-2021.

Bigarrena. Kontuan izanda eskatutako informazioa Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Ogasun Zuzendaritzaren Zeharkako Zergen Zerbitzuaren (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Atala) esku zegoela, 2023ko apirilaren 24an, idazkia bidali zion Ogasun, Finantza eta

Segundo. Considerando que la información solicitada obraba en el Servicio de Tributos Indirectos, Sección de Impuesto sobre el Valor Añadido, de la Dirección de Hacienda del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, el 24 de abril del corriente se



Aurrekontuetako Idazkaritza Teknikoaren buruak Ogazun zuzendariari, jasotako eskaerari erantzun ziezaion eskatzeko.

Hirugarrena. Zeharkako Zergen Zerbitzuaren buruak, 2023ko maitzaren 17an, informazio publikoa eskuratzeko eskaerari buruzko txostena eman zuen, eta txosten horretan, proposatzen du [REDACTED] eskaera ukatzea, honako hauek oinarri hartuta:

“Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 92.1 artikulua zerga datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak direla ezartzen du, bai eta informazio hori lagatzeko edo hirugarrenei jakinarazteko zenbait kasu tasatu ere.”

Aurkeztutako informazio eskaera ez dator bat zerga datuak lagatzeko edo jakinarazteko baimena ematen duen ezein kasurekin, eta, beraz, eskaera hori ukatu egin behar da.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Prozedura eta eskumena.

Gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzko 1/2017 Foru Arauaren 30. artikulua, *“Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzea”* izenekoak, honako hau ezartzen du:

“Pertsona guztiek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabili ahal izango dute 3.1 artikuluan aipatzen diren subjektuen aurrean. Eskubide horren erabilera, prozedura barne, oinarritzko legerian ezartzen denaren eta kapitulu honetan ezartzen denaren bidez arautuko da.”

Gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzko 1/2017 Foru Arauaren 3.1 artikuluan zerrendatutako subjektuen artean, Arabako Foru Aldundia eta haren organoak daude.

Gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzko 1/2017 Foru Arauaren 32.3. artikulua, informazio publikoa eskuratzeko prozedura arautzen du berariaz eta

remitió escrito del Jefe del Servicio de la Secretaría Técnica de Hacienda, Finanzas y Presupuestos a la Directora de Hacienda requiriendo contestación a la solicitud recibida.

Tercero. El Jefe del Servicio de Tributos Indirectos emitió con fecha 17 de mayo informe sobre solicitud de acceso a información pública, en cuya virtud propone denegar el acceso a la información pública solicitada por [REDACTED] con base a los siguientes fundamentos:

“Que el artículo 92.1 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, establece el carácter reservado de los datos, informes o antecedentes tributarios y una serie de supuestos tasados en los que se puede ceder o comunicar a terceros esa información.”

Que la solicitud de información presentada no se ajusta a ninguno de los supuestos en los que se autoriza la cesión o comunicación de datos tributarios, por lo que procede denegar dicha solicitud.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I. Procedimiento y Competencia.

El artículo 30, denominado *“Ejercicio del derecho de acceso a la información pública”*, de la Norma Foral 1/2017 de Transparencia, Participación Ciudadana y Buen Gobierno, establece que:

“Todas las personas podrán ejercer el derecho de acceso a la información pública ante los sujetos enumerados en el artículo 3.1. El ejercicio de este derecho, incluido el procedimiento, se regirá por lo establecido en la legislación básica y por lo previsto en el presente capítulo.”

Entre los sujetos enumerados en el citado artículo 3.1 de la Norma Foral 1/2017 de Transparencia, Participación ciudadana y Buen gobierno figura la Diputación Foral de Álava y sus diferentes Órganos.

En el artículo 32.3 de la Norma Foral 1/2017 de Transparencia, Participación Ciudadana y Buen Gobierno se regula expresamente el procedimiento de acceso a la información



honako hau ezartzen du:

“Foru Aldundiaren esparruan egitekoa esleituta daukaten administrazio unitateek izapidetuko dute eskaera, egitura organiko eta funtzionalari buruzko kasuan kasuko foru dekretuari jarraituz. Hainbat sailen esku badago, hura (edo haren zati nagusia) prestatu edo sortu duen saileko administrazio unitateari egokituko zaio izapidetzea.

Hori dela eta, zerbitzuek eta sailek ahalik eta laguntza gehien emango diote administrazio unitate izapidetzaileari eta lehentasunik handiena emango diete hark jasotzen dituzten eskaerei.”

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretuaren bidez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Idazkaritza Teknikoari esleitzen zaio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren esku dagoen informazioaren inguruko eskaerak izapidetzeko eginkizuna, bai Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzaren esku dagoen informazioaren ingurukoak (zuzendaritza horri atxikita dago idazkaritza), bai Ogasun Zuzendaritzaren esku dagoen informazioaren ingurukoak.

Erreferentzia argiagoa izateko, hona hemen hitzez hitz 12/2016 Foru Dekretu horren 22. artikulua dioena:

“22. artikulua. Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren eginkizunak.

Zerbitzu horrek eginkizun hauek ditu:

(...)

m) Politika publikoen, gardentasunaren eta herritarren parte hartzearen ebaluazioa kudeatzea, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren eskumeneko arloetan, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak,

pública en los siguientes términos:

“En el ámbito de la Diputación Foral, la solicitud se tramitará por las unidades administrativas a las que se atribuya dicha función en el respectivo Decreto Foral de Estructura Orgánica y Funcional. Si se encuentra en poder de varios departamentos, corresponderá la tramitación a la unidad administrativa del departamento que la haya elaborado o generado en su integridad o parte principal.

A estos efectos, los servicios y los departamentos prestarán la máxima colaboración y darán la máxima prioridad a las peticiones que reciban de la unidad administrativa tramitadora.”

Concretamente, mediante el Decreto Foral 12/2016 del Consejo de Diputados, de 9 de febrero, que aprueba la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, se atribuye a la Secretaría Técnica de Hacienda, Finanzas y Presupuestos la tramitación de las solicitudes de información obrante en el Departamento de Hacienda Finanzas y Presupuestos, tanto la obrante en la Dirección de Finanzas y Presupuestos, a la que se adscribe orgánicamente, como la obrante en la Dirección de Hacienda.

Para mejor referencia, a continuación se reproduce el artículo 22 del citado Decreto Foral 12/2016:

“Artículo 22. Funciones del Servicio de Secretaría Técnica de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

Corresponde a este Servicio el ejercicio de las siguientes funciones:

(...)

m) Gestionar la evaluación de políticas públicas, la transparencia y la participación ciudadana en las materias de competencia del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos en los términos previstos en la Norma Foral 1/2017, de 8 de febrero, de Transparencia, Participación Ciudadana y Buen Gobierno del Sector Público del Territorio



xedatzen duen moduan.”

Bestalde, Gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzko otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 35. artikulua ezartzen du eskaera izapidetzen duen saileko titularrak edukiko duela hura ebazteko eskumena, 32. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik.

II. Onargarritasuna.

Gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzko 1/2017 Foru Arauaren 34. artikulua ezartzen ditu *"Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ez onartzeko arrazoen aplikaziorako arau bereziak"*, interpretazio murriztailea dutenak, eta horien artean daude *"Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ez onartzeko oinarritzko legerian aurreikusten diren arrazoiak"*, hain zuzen ere, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 18. artikuluan jasota dauden berberak:

18. artikulua. Eskabideak ez onartzeko kausak.

1. Ez dira izapidetzeko onartuko, ebazpen arrazoitu bidez, honako eskabide hauek:

a) Egiteko bidean den informazioari edo argitarapen orokorrerako bidean den informazioari buruzkoak.

b) Informazio osagarriari edo laguntzarako informazioari buruzkoak; esate baterako, halako informaziotzat hartzen da, oharretan, zirriborroetan, iritzietan, laburpenetan, barne komunikazio eta txostenetan edo organo edo erakunde administratiboen arteko komunikazio eta txostenetan jasotakoa.

c) Hedatzeko, alde aurretik, berriro prestatzea behar duten informazioari buruzkoak.

d) Eskumena nork daukan ez dakigunean, informazioa ez daukan organo bati zuzendutakoak.

e) Argi eta garbi errepikakorrak direnak edo neurritz kanpokoak direnak, lege honen gardentasun helburuarekin justifikatu ezin

Histórico de Álava.”

Por otra parte, el artículo 35 de la Norma Foral 1/2017 de Transparencia, Participación Ciudadana y Buen Gobierno establece que: *"será competente para la resolución de la solicitud él o la titular del Departamento que la ha tramitado de conformidad con lo previsto en su artículo 32."*

II. Admisibilidad.

El artículo 34 de la Norma Foral 1/2017 de Transparencia, Participación Ciudadana y Buen Gobierno establece las *"Reglas especiales en la aplicación de las causas de inadmisión de las solicitudes de acceso"*, de interpretación restrictiva, entre las que se encuentran *"las causas de inadmisión de solicitudes de acceso previstas en la legislación básica"*, que son las señaladas, en el artículo 18 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno, que a continuación se reproduce:

Artículo 18. Causas de inadmisión.

1. Se inadmitirán a trámite, mediante resolución motivada, las solicitudes:

a) Que se refieran a información que esté en curso de elaboración o de publicación general.

b) Referidas a información que tenga carácter auxiliar o de apoyo como la contenida en notas, borradores, opiniones, resúmenes, comunicaciones e informes internos o entre órganos o entidades administrativas.

c) Relativas a información para cuya divulgación sea necesaria una acción previa de reelaboración.

d) Dirigidas a un órgano en cuyo poder no obre la información cuando se desconozca el competente.

e) Que sean manifiestamente repetitivas o tengan un carácter abusivo no justificado con la finalidad de transparencia de esta Ley.



direnak.

2. Eskabidea ez bada onartzen aurreko d) letran adierazitako kausa dela eta, ez onartzea erabakitzen duen organoak, ebazpenean, adierazi beharko du bere ustez nork daukan eskabideaz arduratzeko eskumena.

III. Sailaren esku dagoen informazioa eskuratzeari ukatzea.

1/2017 Foru Arauaren 31.1 artikulua arautzen du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea mugatu edo ukatu egingo dela oinarritzko legerian ezartzen diren arrazoiengatik eta bertan adierazitako moduan.

Hala, beharrezkoa da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea jotzea. Lege horren lehen xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du berariaz informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen arauketa bereziei dagokienez:

2. Araudi espezifiko baten pean izango dira, lege honetan ezarritako araudia osagarri dutela, informazioa eskuratzeko araubide juridiko espezifikoak duten gaiak.

Horrenbestez, zerga araubideari dagokionez, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean xedatutakoa bete behar da, foru organo fiskalek agindutako eginkizuna bete ahal izateko zerga araubidea eta partikularren, pertsona fisiko eta juridikoen, datuak lortzea arautzen duen arau espezifikoak baita.

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokor horrek informazio sistema propioa eta Zerga Administrazioaren aldeko informazio betebeharra ezartzen ditu.

Are gehiago, 92. artikuluan, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek zerga arloko datuak isilpekoak direla ezartzen du; beraz, Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta kudeatu behar dituen tributu edo baliabideak eraginkortasunez aplikatzeko eta dagozkion zehapenak ezartzeko baino ezin izango dira erabili, eta ezin izango zaizkio hirugarrenei laga edo jakinarazi, salbu

2. En el caso en que se inadmita la solicitud por concurrir la causa prevista en la letra d) del apartado anterior, el órgano que acuerde la inadmisión deberá indicar en la resolución el órgano que, a su juicio, es competente para conocer de la solicitud.

III. Denegación del acceso a la información obrante en el Departamento.

El artículo 31.1 de la Norma Foral 1/2017 regula que el derecho a la información pública se limitará o denegará por las causas y en los términos previstos en la legislación básica.

Así, es necesario acudir a la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno, que en su Disposición Adicional Primera establece expresamente, en relación con las regulaciones especiales del derecho de acceso a la información pública, lo siguiente:

2. Se regirán por su normativa específica, y por esta Ley con carácter supletorio, aquellas materias que tengan previsto un régimen jurídico específico de acceso a la información.

Por lo tanto, respecto al régimen tributario, ha de estarse a lo dispuesto en la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, por tratarse de la norma específica que regula el régimen tributario y la obtención de datos de particulares, personas físicas y jurídicas, para poder llevar a cabo la función encomendada a los órganos fiscales forales.

Esta Norma Foral General Tributaria de Álava establece un sistema de información propio y una obligación de información a favor de la Administración Tributaria.

A mayor abundamiento, en su artículo 92, la Norma Foral General Tributaria de Álava determina el carácter reservado de los datos con carácter tributario; de tal manera que los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria en el desempeño de sus funciones tienen carácter reservado y sólo podrán ser utilizados para la efectiva aplicación de los tributos o recursos cuya gestión tenga encomendada y para la imposición de las



esta 92. artikuluko 1. apartatuann berariaz araututako kasuetan. Hona hemen 92.1 artikulua hitzez hitz:

1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak egitean eskuratzen dituen datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira eta hark kudeatzen dituen zergak edo baliabideak aplikatzeko eta bidezko zehapenak ezartzeko soilik erabili ahal izango dira, eta ezin zaizkie laga gainontzekoei, ez jakinarazi, ondoko xedeetako baterako izan ezean:

a) Jurisdikzio-organoei eta fiskaltzari laguntzea delituak ikertzen edo jazartzen, laidotutako pertsonak eskatuta soilik jazarri ahal direnak izan ezik.

b) Beste zerga administrazio batzuekin lankidetzan aritzea bere eskumenen eremuan zerga-betebeharrak betearazteko.

c) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzarekin eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileekin eta zerbitzu erkideekin lankidetzan aritzea Gizarte Segurantzaren sistemako kuoten kotizazioan eta bilketan eta sistemaren konturako prestazioak lortzean eta baliatzean gertatzen den iruzurraren aurka borrokatzeko, eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileekin lankidetzan aritzea Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 308. artikuluan aipatzen diren norberaren konturako langileen edo langile autonomoen kotizazioak erregularizatzeko.

Gainera, Zerga Administrazioak asegurudun edo onuradun izaera aitortzeko eta kontrolatzeko ardura duen herri administrazioaren organoaren eskura jarriko ditu erabiltzaileen errenta mailari buruzko datuak, hain zuzen ere, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu komunak zorroko prestazioen, ekarpena beharrezkoa dutenen, ordainketan izango den partaidetzaren ehunekoa zehazteko beharrezkoak direnak.

sanciones que procedan, sin que puedan ser cedidos o comunicados a terceros, excepto en los supuestos regulados expresamente en el apartado 1 del citado artículo 92, que a continuación se reproduce:

1. Los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración Tributaria en el desempeño de sus funciones tienen carácter reservado y sólo podrán ser utilizados para la efectiva aplicación de los tributos o recursos cuya gestión tenga encomendada y para la imposición de las sanciones que procedan, sin que puedan ser cedidos o comunicados a terceros, salvo que la cesión tenga por objeto:

a) La colaboración con los órganos jurisdiccionales y el Ministerio Fiscal en la investigación o persecución de delitos que no sean perseguibles únicamente a instancia de persona agraviada.

b) La colaboración con otras Administraciones Tributarias a efectos del cumplimiento de obligaciones fiscales en el ámbito de sus competencias.

c) La colaboración con la Inspección de Trabajo y Seguridad Social y con las entidades gestoras y servicios comunes de la Seguridad Social en la lucha contra el fraude en la cotización y recaudación de las cuotas del sistema de Seguridad Social, y contra el fraude en la obtención y disfrute de las prestaciones a cargo del sistema, así como la colaboración con las entidades gestoras de la Seguridad Social para la práctica de la regularización de cotizaciones de las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas a que se refiere el artículo 308 del Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social.

Asimismo, la Administración Tributaria facilitará al órgano de la Administración Pública responsable del reconocimiento y control de la condición de asegurado o de beneficiario del mismo los datos relativos a los niveles de renta de las usuarias o usuarios, en cuanto sean necesarios para determinar el porcentaje de participación en el pago de las prestaciones de la cartera común de servicios del Sistema Nacional de Salud sujetas a aportación.



d) Herri administrazioekin lankidetzan aritzea, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak pertsegitzeko, eta iruzurraren aurka egiteko funts publikoen edo Europar Batasunaren konturako laguntzak edo diru-laguntzak lortu edo jasotzean.

e) Biltzar Nagusietan osatutako ikerketa batzordeekiko lankidetzatza, baita beste parlamentuko ikerketa batzordeekiko ere, arau honetako 92. bis artikuluan finkatutako esparruan.

f) Jurisdikzio-organismoek edo fiskaltzak ezgaitutakoen eta adingabekoen eskubideak eta interesak babestea.

g) Herri Kontuen Euskal Epaitegiari Zerga Administrazioako fiskalizazio-lanetan laguntzea.

h) Epaileekin eta auzitegiekin lankidetzan aritzea epai-ebazpen irmoak betearazteko. "Epailearen informazio-eskabideak berariazko ebazpena beharko du; ebazpen honetan, dagokion gaiak ukitzen dituen interes publiko eta pribatuak haztatu ondoren eta zordunaren ondasun eta eskubideen izatea ezagutzeko gainerako bide eta iturriak agortu izanagatik Zerga Administrazioari datuak eskatu beharraren zioak azalduko dira.

i) Kapitalak Zuritzearen eta Moneta Urratzeen Aurkako Batzordearen Zerbitzu Betearazleari, Terrorismoa Finantzatzeko Jarduerak Zaintzeko Batzordeari eta horien bien idazkaritzei euren eginkizunetan laguntzea.

j) Zergaz besteko baliabide publikoak biltzen diharduten Zuzenbide Publikoko organoei edo erakundeei zergadunak zuzen identifikatzen laguntzea.

k) Estatistikaren arloan eskumena duten herri administrazioek datuak estatistikak egiteko erabiltzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatistikei buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak eman dizkien eginkizunak betetzeko. Informazio-eskaeran zehatz-mehatz azaldu

d) La colaboración con las Administraciones Públicas para la persecución de los delitos contra la Hacienda Pública y la Seguridad Social y para la lucha contra el fraude en la obtención o percepción de ayudas o subvenciones a cargo de fondos públicos o de la Unión Europea.

e) La colaboración con las Comisiones de Investigación constituidas en las Juntas Generales, así como con cualesquiera otras Comisiones Parlamentarias de Investigación en el marco fijado en el artículo 92 bis de esta Norma.

f) La protección de los derechos e intereses de los menores e incapacitados por los órganos jurisdiccionales o el Ministerio Fiscal.

g) La colaboración con el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en el ejercicio de sus funciones de fiscalización de la Administración Tributaria.

h) La colaboración con los Jueces y Tribunales para la ejecución de resoluciones judiciales firmes. La solicitud judicial de información exigirá resolución expresa en la que, previa ponderación de los intereses públicos y privados afectados en el asunto de que se trate y por haberse agotado los demás medios o fuentes de conocimiento sobre la existencia de bienes y derechos del deudor, se motive la necesidad de recabar datos de la Administración Tributaria.

i) La colaboración con el Servicio Ejecutivo de la Comisión de Prevención del Blanqueo de Capitales e Infracciones Monetarias, con la Comisión de Vigilancia de Actividades de Financiación del Terrorismo y con la Secretaría de ambas Comisiones, en el ejercicio de sus funciones respectivas.

j) La colaboración con órganos o entidades de derecho público encargados de la recaudación de recursos públicos no tributarios para la correcta identificación de los obligados al pago.

k) La utilización de datos con fines estadísticos por parte de las Administraciones Públicas competentes en materia estadística para el cumplimiento de las funciones que les atribuye la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi. La



behar dira lagako diren zerga-datuak erabiliz
egingo diren estatistika-lanaren helburuak.
Datuok, beti ere, multzoka erabili behar dira
azterlanetan eta ezin dira gorde norbanakoen
arabera bereizita.

l) Herri administrazioei eta sektore publikoko
gainerako erakundeei beren eginkizunetan
laguntzea, zergapekoek beren datuak
horretarako lagatzeko baimena eman ondoren.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde
administrazio publikoekin elkarlanean aritzea,
haren eskumeneko zuzenbide publikoko sarrerak
biltzeko.

n) Arabako Merkataritza eta Industria
Ganberari eta Merkataritza Ganberen Kontseilu
Nagusari enpresen errolda publikoa egiten
laguntzea, martxoaren 22ko 3/1993 Legeko 17.2
artikuluaren ezarritakoarekin bat etorritik.

ñ) Elkarren arteko laguntzari buruzko
araudiaren esparruan informazioa trukitzea.

o) Abokatutzaren Kontseilu Nagusiarekin eta
abokatuen elkargoekin lankidetzan aritzea
doako laguntza juridikorako eskubidea
aitortzeko, emandako datuen gai diren
zergapekoek baimena eman ondoren.

p) Europar Batasuneko Eskubidean eta
ordenamendu juridikoa osatzen duten
nazioarteko itun eta akordioetan jasotako
egoerak.

q) Aktiboak Berreskuratzeko eta Kudeatzeko
Bulegoarekiko lankidetzak, zigor prozesu batean
enbargatutako edo konfiskatutako ondasunak
lokalizatzeko beharrezkoak diren datu, txosten
edo aurrekariaren lagapenaren bidez, gertakari
hori egiaztatzen ondoren.

r) Maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-
dekretuan ezarritako bizitzeko gutxieneko diru
sarreraren datuak Gizarte Segurantzako
ordaindutakoaz.

solicitud de información deberá justificar las
finalidades concretas del trabajo estadístico
para el que se requiere la cesión de los datos
tributarios. Estos datos serán utilizados, en todo
caso, para la elaboración de informes de datos
agregados y no podrán ser almacenados de
forma individualizada.

l) La colaboración con las Administraciones
Públicas y demás entidades que integran el
sector público para el desarrollo de sus
funciones, previa autorización de los obligados
tributarios a que se refieran los datos
suministrados.

m) La colaboración con las Administraciones
Públicas Territoriales de la Comunidad
Autónoma del País Vasco para la recaudación
de los ingresos de Derecho Público de su
competencia.

n) La colaboración con la Cámara Oficial de
Comercio e Industria de Álava y el Consejo
Superior de Cámaras, a los efectos de
confeccionar el Censo Público de Empresas, en
los términos previstos en el artículo 17.2 de la
Ley 3/1993, de 22 de marzo.

ñ) El intercambio de información en el marco de
la normativa sobre asistencia mutua.

o) La colaboración con el Consejo General de
la Abogacía y con los Colegios de Abogados para
el reconocimiento del derecho a la Asistencia
Jurídica Gratuita, previa autorización de los
obligados tributarios a que se refieran los datos
suministrados.

p) Los supuestos previstos en el Derecho de la
Unión Europea y en los Tratados y Acuerdos
Internacionales que formen parte del
Ordenamiento Jurídico.

q) La colaboración con la Oficina de
Recuperación y Gestión de Activos mediante la
cesión de los datos, informes o antecedentes
necesarios para la localización de los bienes
embargados o decomisados en un proceso penal,
previa acreditación de esta circunstancia.

r) La colaboración con las entidades
encargadas de la gestión de la prestación
económica no contributiva de la Seguridad
Social del Ingreso Mínimo Vital establecido en



el Real Decreto-Ley 20/2020, de 29 de mayo.

Egiaztatu da [REDACTED] aurkeztutako informazio publikoa eskuratzeko eskaera (BEZaren aitorpenaren mikrodatuak, .csv formatuan edo antzekoan. Zehazki, honako mikrodatu hauei dagozkienak: (1) BEZaren aitorpena (303 ereduak), eta (2) erregistro-liburuak edo homologoak euskal ogasunarentzat. Ahal izanez gero, eskatutako informazioak 1990-2021 aldia estaliko luke), ez dagoela jasota goian hitzez hitz kopiaututako Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 92.1 artikuluan araututako zerga garrantzia duten datu lagapenetan.

Eta hori ondorioztatzen du Zeharkako Zergen Zerbitzu buruak, hirugarren aurrekarian aipatutakoa.

Horregatik, eta martxoaren 18ko 146/2020 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Ukatzea [REDACTED] jaunak informazioa eskuratzeko aurkeztutako eskaera, ebazpen honetan adierazitakoa dela eta.

Bigarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, edo, bestela, aldez aurretik eta nahi izanez gero, erreklamazioa aurkez daiteke Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Foru Kontseiluan, hilabeteko epean; bi kasuetan, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da epea.

Vitoria-Gasteiz,

María José Perea Urteaga
Ogasun zuzendaria
Directora de Hacienda

Se constata por lo tanto que el objeto de la solicitud de [REDACTED], consistente en los microdatos de la declaración del IVA en formato .csv o similar, en concreto, los microdatos correspondientes a (1) declaración del IVA (Modelo 303), y (2) libros de registro, u homólogos para la Hacienda Vasca. Idealmente la información solicitada cubriría el periodo 1990-2021, no se encuentra contemplado en las cesiones de datos con trascendencia tributaria reguladas en el artículo 92.1 de la Norma Foral General Tributaria de Álava, arriba reproducido.

Y en este sentido concluye el Jefe del Servicio de Tributos Indirectos, referido en el antecedente de Hecho Tercero.

En virtud de lo dispuesto por la Orden Foral 146/2020, de 18 de marzo haciendo uso de las facultades que me competen

RESUELVO

Primero. Denegar la solicitud de acceso a la información presentada por [REDACTED], en virtud de lo señalado en la presente resolución.

Segundo. Contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de Vitoria-Gasteiz en el plazo de dos meses o, previa y potestativamente, reclamación ante el Consejo de Gobierno Foral de Transparencia y Buen Gobierno en el plazo de un mes; en ambos casos, el plazo se contará desde el día siguiente al de la notificación de la presente resolución.